



ERANSKINA

ZERGA NEURRIEN FORU ARAUAREN PROIEKTUA

ZIOEN ADIERAZPENA

Foru arau honen xedea da zenbait aldaketa egitea Arabako zerga sistemako oinarritzko araudian eta zerga batzuetan.

Zergen Foru Arau Orokorrari dagokionez, aldaketa bat egiten da betebeharraren formalen araudian, besteak beste; gainera, ondare prestazio publikoaren kontzeptua ere aldatzen da.

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan, autolikidazioa aurkeztean egin beharreko hautapenen araubidea aldatzen da, eta ezartzen da zergapekoek hautapenak aldatu ahal izango dituztela Administrazioaren aurretiazko errekerimendurik egon ezean. Aldaketa bera sartzen da sozietateen gaineko zergan eta kooperatiben zerga araubidean.

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan, halaber, ehuneko 1,5 deflaktatzen da likidazio oinarri orokorrean aplikatu beharreko tarifa, eta ehuneko berean eguneratzen dira baterako tributazioaren kenkaria eta kenkari pertsonalak eta familiarrak. Beste alde batetik, kuotan aplikatu daitezkeen bi kenkari sortzen dira: bata langileak entitate enplegatzailean parte hartzeagatik aplikatu daiteke, erabakiak hartzen parte hartuz gero; bestea pertsona langileek entitateak eratzeko aplikatu daiteke.

Zerga honi dagokionez, indargabetu egiten da, denbora desberdinetan gaiaren arabera, urtarrilaren 16ko 1/2019 Foru Araua, zeinak aitortzen egiteko betebeharraren mugak aldatu baitzituen, eta egokitzapenak egin baitzituen adinagatik eta ondorengoengatik kenkarian.

Sozietateen gaineko zergaz denaz bezainbatean, lehen aipatu den hautapenen araubideaz gainera, hainbat gauza aldatzen dira ondare sozietateen araubidean, eta azaltzen da zer egin behar den aparteko mozkinen berrinbertsioagatik kenkaria aplikatzeko ibilgailuen eskualdaketetan.

Gainera, ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzeagatik aplikatu daitezkeen kenkariaren erregulazioan hainbat doikuntza egiten dira ekonomia intereseko taldeei dagokienez.

Halaber, zenbait zehaztasun sartzen dira sozietateen gaineko zerga zatika ordaindu behar dutenei dagokienez.

Ondasun higiezinaren gaineko zerga dela eta, aldaketa batzuk sartzen dira zerga horren jasanarazpenaz eta bizitegi erabilerako ondasun higiezinaren gaineko errekararen aplikazioaz.

Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren epigrafe batzuk aldatzen dira, Ekonomia Ituna betetzeko; izan ere, Ekonomia Itunak ezartzen du lurralde erkidego jarduera sailkapen bera eduki behar dela.

1. artikulua. Arabako Zergen Foru Arau Orokorra.



Lehena. Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean hainbat aldaketa egiten dira:

Bat. 61. artikulua 5. apartatua honela geratzen da:

“5. Epe exekutiboa hasita eta premiamendu probidentzia jakinarazita, zerga administrazioak adierazitako epean ordaindu beharko da zerga zorra. Epe hori ez da inoiz premiamendu probidentziaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita hilabete baino laburragoa.”

Bi. 100. artikulua 1. apartatua honela geratzen da:

“1. Ebazpena jakinarazteko gehieneko epealdia kasuan kasuko prozedurari buruzko arautegian finkatuko da. Prozedurari buruzko arautetan gehieneko epealdia ezarri ezean, sei hilabete baino lehen ebatzi beharko da.

Honela zenbatuko da epealdia:

a) Ofizioz hasten diren prozeduretan, hasteko erabakia jakinarazten den egunetik.

b) Interesdunak eskatuta hasten diren prozeduretan, agiria izapidetzeko eskumena daukan administrazioaren erregistroan agiria sartzen den egunetik.

Apartatu honetan xedatzen dena ez da aplikatuko premiamendu prozeduretan; beraz, premiamendu prozeduretako jarduketek preskribitzeko epealdia amaitu arte iraun dezakete.”

Hiru. 105. artikulua 2. apartatua honela geratzen da:

“2. Interesdunak baliabide telematikoak erabiltzearekin ados dagoela adierazi badu eta modu hori lehenetsi badu, jakinarazpenak telematikoki bidali ahal izango dira, hurrengo apartatuan, hirugarrenean, xedatutakoa gorabehera.

Jakinarazpenen sistema horrek jakinarazpena interesdunaren esku noiz jarri den (eguna eta ordua) zehazteko aukera eman behar du, eta edukia noiz irakurri den ere bai (ordutik aurrera jakinarazpena egintzat joko da).

Jakinarazi dela egiaztatuta, hamar egunean edukia irakurri ez bada, jakinarazpena ezetsi egiten dela esan nahiko du, eta 107. artikulua 2. apartatua xedatutako ondorioak izango ditu, salbu eta, ofizioz edo hartzaileak eskatuta, egiaztatzen den ezin izan dela edukia irakurri arazo tekniko edo materialengatik.”

Laugarrena. 119. artikulua beste apartatu bat gehitzen zaio, bigarrena; hona testua:

“Azpiatal honetako prozedurako jarduketak preskripzio epealdiaren barruan egin ahal izango dira.”

Bost. 122. artikulua beste apartatu bat gehitzen zaio, bigarrena; hona testua:

“Azpiatal honetako prozedurako jarduketak preskripzio epealdiaren barruan egin ahal izango dira.”

Sei. Lehenengo xedapen gehigarria aldatzen da eta honela geratzen da:



“Lehena. Ondare-prestazio publikoak.

1. Ondare-prestazio publikoak dira Konstituzioaren 31.3 artikulua aipatu eta hertsapenez exijitzen direnak.

2. Aurreko apartatuan aipatutako ondare-prestazio publikoek tributu-izaera edo tributuz kanpoko izaera izan ahalko dute.

1. apartatuan aipatzen diren prestazioetatik zergetakoak dira foru arau honetako 16. artikuluan ezartzen denaren arabera tasatzen, kontribuzio berezitat edo zergatzen jotzen direnak.

Tributu-izaera ez duten ondare-prestazio publikoak dira hertsapenez exijitzen diren eta interes orokorra xede duten gainerako prestazioak.

Bereziki, tributu-izaera ez duten ondare-prestazio publikotzat hartuko dira halako izaera izanik pertsonifikazio pribatuaren bitartez zuzenean kudeatutako zerbitzua emateagatik edo zeharka kudeatutako zerbitzua emateagatik exijitzen direnak.

Zehatzago esanda, zergez kanpoko ondare prestazio publikoak dira kontzesio araubidean edo ekonomia mistoko sozietatea eratuta, enpresa entitate publikoaren bidez, kapital osoa publikoa duen sozietate baten bidez zein zuzenbide pribatuko gainerako formula guztien bidez obrak ustiatzeagatik edo zerbitzuak egiteagatik eskatzen direnak.”

Bigarrena. Hona hemen 2020ko uztailaren 1etik aurrera ondorioak izango dituzten Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean egindako hainbat aldaketa:

Bat. Beste xedapen gehigarri bat gehitzen da, hain zuzen ere hogeita laugarrena. Hona hemen haren testua:

“Hogeita laugarrena. Zerga plangintzarako zenbait mekanismo jakinarazteko beharra.

1. Zerga alorrean administrazio lankidetzari buruzko eta 77/799/CEE Zuzentaraua eta foru arau honen 29., 29.bis eta 90. artikulua indargabetzen dituen 2011ko otsailaren 153ko Kontseiluaren 2011/16/UE Zuzentarauaren arabera, bitartekoek eta zergapeko interesdunek hauek jakinarazi beharko dizkiote zerga administrazioari, arauak ezarritako eran:

a) Parte hartzen duten mugez gaindiko mekanismoak, baldin eta aurreko apartatuan aipatutako araudian zehaztutako zeinu bereizgarrien bat tarteko bada.

b) Mugez gaindiko mekanismo salerosgarrien eguneratzeari buruzko informazioa.

c) Plangintzako mugez gaindiko mekanismoen erabileraren informazioa.

2. Zerga Foru Arau Orokorren 90.5 artikuluan aipatzen diren ez ondarezko datu pribatuak eta isilpeko datuak direla eta, garatzen duten jardura ekonomikoa gorabehera, Kontseiluaren 2011/16/UE Zuzentarauaren 8.bis ter artikuluan 5. apartatuan aipatutako lanbide sekretuaren titular dira zuzentarau horren arabera bitarteko direnak, baldin eta zuzentarauak zehaztutako mugez gaindiko mekanismoetan interesa duten zergapekoengatik jaso edo lortzen badituzte.



Lanbide sekretupean dagoen zergapekoa hori egitetik salbuetsiko da zergapeko interesdunak dudarik gabe jakinarazitako baimen bidez.

3. Erantzukizunetik salbuestea.

Legeak eskatutako eran, Kontseiluaren 2011/16/UE Zuzentarauan aipatzen diren zerga plangintzako mekanismoak jakinarazteko beharra interesdunek betetzeak ez du esan nahi kontratu edo arau bidez ezarritako informazioa zabaltzeko muga apurtzen dela, eta, ondorioz, subjektu behartuek ez dute inolako erantzukizunik informazio horren zergapeko interesdun titularrarekiko.

4. Arau hausteen eta zehapenen araubidea.

Zergen arloko arau haustea da xedapen gehigarri honetan aipatzen diren aitorten informatiboak ezarritako epealdian ez aurkeztea, bai eta aitortenok osatu gabe, okerreko datuekin edo datu faltsuekin aurkeztea ere.

Zergen arloko arau haustea izango da haiek bide elektroniko, informatiko eta telematikoen bidez ez aurkeztea, baldin eta bide horietatik aurkeztera behartuta badaude.

Aurreko arau hauste horiengatik 1.000 euroko isuna izango da aitorten berari dagokion datu edo datu multzo oker, osagabe edo aizuneko; gutxienez, 3.000 euro direla, eta, gehienez, jaso beharreko edo jasotako ordainsarien edo arauz ezarritako eran kalkulaturako mugez gaindiko mekanismoei darien zerga balioaren berdina dela, arau hauslea bitartekoa edo zergapeko interesduna den kontuan hartuta, hurrenez hurren. Gehieneko hori ez da aplikatuko isuna 3.000 euro baino gutxiago denean.

Aurrekoa gorabehera, arauz ezarritakoaren arabera mugez gaindiko mekanismoak baliorik ez duenean eta arau hauslea zergapeko interesduna denean, gehieneko muga bitartekoan jasotako edo jaso beharreko ordainsarien berdina izango da.

Ordainsaririk ez badago, muga bitarteko bihurtzen duen jardueraren merkatu balio izango da, zeina Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 42.1 artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu den.

Aurreko gehieneko mugak aplikatzeari dagokionez, arau hausleak arau haustea eginaren eta haren zenbatekoaren dudarik gabeko froga aurkeztu beharko du.

Isuna eta apartatu honetan xedatutako gutxieneko eta gehieneko mugak erdira ekarriko dira, baldin eta informazioa Zerga Administrazioak eskatu gabe epez kanpo aurkeztu bada.

Informazioa baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez aurkezteko beharra egon eta hala aurkezten ez bada, aitorten bereko datu edo datu multzoko 250 euroko isuna jarriko da, gutxienez, 750 euro, eta, gehienez, 1.000 euro dela.

5. Xedapen gehigarri honetan arautzen diren arau hausteak eta zehapenak ez dira bateragarriak Zerga Foru Arau Orokor honetako 202. eta 203. artikuluetan arautzen direnekin.”

Bi. Beste xedapen gehigarri bat gehitzen da, hain zuzen ere hogeita bosgarrena. Hona hemen haren testua:



“Hogeita bosgarrena. Zerga plangintzako mugez gaindiko mekanismoen aitoren beharrari darizkion partikularren arteko betebeharrak.

1. Zerga plangintzako mugez gaindiko mekanismoen aitorena aurkeztetik, lanbide sekretupea dela eta, salbuetsitako bitartekoek dudarik gabe jakinarazi beharko diote salbuespen hori gainerako bitarteko eta zergapeko interesdunei arauz ezarritako eran, baldin eta mekanismo horietan parte hartzen badute.

2. Legez aitortzeko beharra izan eta aitorena aurkeztu duten pertsona edo erakundeek dudarik gabe jakinarazi beharko diote aipaturako zergapeko salbuetsiei aurkezpen hori arauz ezarritako eran. Aurkezpen horretan zehaztuko dute gainerako bitartekoak edo mugez gaindiko mekanismoetan parte hartzen duten zergapeko interesdunak salbuetsita daudela.

3. Zehapen araubidea.

Zerga arau haustea da zehapen gehigarri honetan adierazitako komunikazioak epe barruan ez egitea edo komunikazio horiek datuak isilaraziz edo datu aizunak, osagabeak edo okerrak emanez egitea.

Arau hauste horrek 600 euroko isuna izango du.”

2. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.

Lehena. Beste apartatu bat gehitzen zaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 9. artikuluari, hain zuzen ere hogeita hemezortzigarrena. Apartatu horrek 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. Hona hemen aurrerantzean apartatu horrek izango duen edukia:

“38. Administrazio publikoek eta haien sozietate publikoek zuzenean zein zeharka emandako laguntzak eta dirulaguntzak, energia eta mugikortasun eraginkortasunaren irtenbide bateratu eta orekatua helburu duen Gasteizko Koroatze auzorako Hirigintza Integratuko Eraberritze Proiektuarekin eta eremu horretan bizi kalitatea era jasagarrian hobetzen duten IKTekin zerikusia dutenak.”

Bigarrena. Aukera araubidearekin zerikusia duten aldaketa hauek egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan (2019ko urtarrilaren 1etik aurrera dituzte ondorioak aldaketa horiek):

Bat. 9. artikuluko 17. apartatuko azken paragrafoa ezabatzen da.

Bi. 25. artikuluko 3. apartatua honela geratzen da:

“3. Jarduera ekonomikoekin etekin garbia kalkulatzeko, haiei atxikitako ondare elementuen ondoriozko ondare irabaziak edo galerak hartuko dira kontuan; horien zenbatekoak Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak ezartzen duenaren arabera zehaztuko dira.

Halaber, foru arau horretako 36. artikuluan aparteko mozkinen berrinbertsioaz xedatzen dena aplikatuko zaie.

Honela jokatuko da etekin garbia kalkulatzeko: apartatu honetan xedatzen denaren aplikazioaren ondorioz ondare irabaziak badaude, jarduera ekonomikoekin arruntari gehituko zaizkio; aldiz, ondare galerak badaude, etekin arrunt horretatik kenduko dira.”



Hiru. 65. artikuluko b) letrako azken paragrafoa ezabatzen da.

Laugarrena. 82. artikuluko 4. apartatuko azken paragrafoa ezabatzen da.

Bost. 88. artikuluko 4. apartatua ezabatzen da.

Sei. 89. artikuluko 7. apartatuko edukia ezabatzen da eta ondorioz lehen 8. apartatua zena orain 7. apartatua da.

Zazpi. 90. artikuluko 8. apartatua ezabatzen da.

Zortzi. 97. artikuluko 4. apartatua ezabatzen da eta ondorioz lehen 5. apartatua zena orain 4. apartatua da.

Bederatzi. 105. artikulua honela geratzen da:

“105. artikulua. Autolikidazioa aurkeztean egin beharreko hautapenak.

1. Arabako zergen Foru Arau Orokorrak 115. artikuluko 3. apartatuan xedatzen duena aplikatzeko, zerga honen autolikidazioa aurkezten denean hautapen hauek egin behar dira:

a) Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lan-etekinen salbuespena aplikatzeagatik aukera (9.17 artikuluan arautzen da), edo gaindikinen araubidea aplikatzeagatikoa.

b) Aparteko mozkinen berrinbertsioa; 25.3 artikuluan arautzen da.

c) Aurreko ekitaldietako saldo negatiboen konpentsazioa; 65. artikuluko b) letran arautzen da.

d) Lekualdatutako langileen araubide berezia; 56.bis artikuluan arautzen da.

e) Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak; 88., 89., 89.bis, 90. eta 90.quater artikuluetan arautzen dira.

f) Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetan inbertitzeagatik aplika daitekeen kenkaria.

g) Zerga batera ordaintzea; 97. artikuluan arautzen da.

h) Negoziatzeko onartutako baloreek sortutako ondare irabazietarako aukerako tributazio araubidea; hogeigarren xedapen gehigarrian arautzen da.

2. Zergadunek Zergaren autolikidazioan aurreko idatz zatian aipatzen diren hautapenak aldatu ahal dituzte Zergaren aitortpena norberaren borondatez aurkezteko epealdia amaitu ondoren, baldin eta Zerga Administrazioak errekerimendurik egin ez badie.

3. Zerga Administrazioak errekerimendua egin ondoren zergadunek ezin izango dituzte egin artikuluhonetan aipatzen diren hautapenak.

4. Aurreko apartatuetan xedatzen denari dagokionez, aurretiazko errekerimendua zer den Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak ezartzen du 27.1 artikuluko bigarren paragrafoan.”



Hamar. Hogeigarren xedapen gehigarriko lehenengo apartatuan honela geratzen da:

“Bat. Foru arau honetako 47. artikuluko 1. apartatuko a) letran aipatzen diren baloreak kostu bidez eskualdatzen dituzten zergadunek aukeran izango dute artikuluko horretan xedatutakoa aplikatzea eskualdaketa sortutako ondare irabazia kalkulatzeko, edo ehuneko 3ko karga berezia aplikatzea eskualdaketa balioari, betiere balio hori 10.000 eurotik beherakoa bada ekitaldi bakoitzean, eskualdatutako balore guztiak batuta.

Xedapen gehigarri honetan xedatzen dena ez zaio aplikatutako balore horien harpidetza eskubideen eskualdaketa, eta haien eskualdaketa balioa ez da zenbatuko aurreko paragrafoan aipatzen diren balore eskualdaketa guztietako baloreen eskualdaketa balioa zehazteko. Foru arau honetako 47. artikuluko 1. apartatuko a) letrako bigarren paragrafoan ezartzen denaren arabera zehaztuko da zenbatekoa den harpidetza eskubideok eskualdatzearen ondoriozko ondare irabazia.

Zergadunak araubide hori aplikatzen badu eta balore homogeenak badaude, eskualdatu dituen baloreak lehenik eskuratu zituenak direla pentsatuko da.”

Hirugarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan honako aldaketa hauek egiten dira (2019ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. Erregela berezia gehitzen zaio 27. artikuluari, hamargarrena; hona:

“10. Zuzeneko zenbatespenean etekin garbia zehaztean, zergadunak jarduera ekonomikoan bere burua mantentzeko jabetzetan eta ostalaritzako establezimenduetan egiten dituen gastuak kengarriak izango dira, baldin eta baliabide elektronikoen bidez ordaintzen badira; gastu hauek muga dute, pertsona langileen ohiko mantenu gastuetarako ezarritako dieta eta diru kopuruen arauzko muga, bai eta arauz ezarritako beste betekizun batzuk ere.”

Bi. 57. artikuluko 3. apartatua honela geratzen da:

“3. Pertsona bat atzerrira badoa bizitzen eta ondorioz zergaduna izateari uzten badiu, egotzi gabeko errentak aurreko egoitza dagoen lurraldean aurkeztu behar duen azken aitortzearen zergaldiko zerga oinarrian integratu behar dira arautegian ezarritako dagoen bezala; beharrezkoa izanez gero, autolikidazio osagarria egingo da, eta ez zaio ezarritako zehapenik, ez berandutze interesik, ez errekarurik.

Zergadunak Europar Batasuneko beste herrialde batera aldatzen badu egoitza, bi aukera edukiko ditu: errentak aurreko paragrafoan xedatzen denaren arabera egotzi edo, bestela, egotzi beharrezko errenta bakoitza lortu ahala azken zergaldiko autolikidazio osagarria egin (ez dago zehapenik, ez berandutze interesik, ez interesik). Autolikidazioa epealdi honetan aurkeztu behar da: zergaduna izateari utzi ezean errentak egotzi beharko ziren zergaldiko aitortzearen aurkezteko epealdian.”

Hiru. 70. artikuluko 1. apartatuko 1. zenbakia honela geratzen da:

“1º. Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako bazkideek egindako ekarpenak, baldin eta beren xedea Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateen otsailaren 23ko 5/2012 Legeak 24. artikuluko 1. apartatuan aipatzen dituen kontingentziak eta bazkide langileen langabezia estaltzea bada (lanaren etekin gisa egotzi zaizkien bazkide babesleen kontribuzioak ere bai).”

Laugarrena. 73. artikulua honela geratzen da:



“73. artikulua. Zerga batera ordaintzeagatik aplikatzen den murrizketa.

1. Foru arau honetako 98. artikuluan xedatzen denaren arabera baterako tributazioa hautatuz gero, 4.347 euroko murrizketa egin daiteke urteko autolikidazioko zerga oinarri orokorrean.

2. Aurreko idatz zatiko murrizketa 3.776 eurokoa izango da foru arau honetako 98. artikuluko 2. apartatua aipatzen diren familia unitateen autolikidazioan.”

Bost. 75. artikuluko 1. apartatua honela geratzen da:

“1. Likidazio oinarri orokorrari eskala honetan adierazten diren tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio oinarriaren muga Euroak	Kuota osoa Euroak	Likidazio oinarria, gainerakoa Euroak	Aplikatu beharreko tasa Ehunekoa
0,00	0,00	16.030,00	23,00
16.030,00	3.686,90	16.030,00	28,00
32.060,00	8.175,30	16.030,00	35,00
48.090,00	13.785,80	20.600,00	40,00
68.690,00	22.025,80	26.460,00	45,00
95.150,00	33.932,80	31.700,00	46,00
126.850,00	48.514,80	58.100,00	47,00
184.950,00	75.821,80	Hortik gora	49,00

Sei. 77. artikulua honela geratzen da:

“77. artikulua. Kuotaren murrizketa.

Zergadunek 1.432 euroko murrizketa egin dezakete kuotan, autolikidazio bakoitzean, foru arau honetako 74. artikuluan ezartzen denaren arabera”.

Zazpi. 79. artikuluko 1. eta 2. apartatuak honela geratzen dira:

“1. Kenkari hau aplikatuko da zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko:

a) 603 euro urtean lehenengoagatik.

b) 747 euro urtean bigarrenagatik.



c) 1.261 euro urtean hirugarrenagatik.

d) 1.490 euro urtean laugarrenagatik.

1.946 euro urte bosgarrenarengatik edo hurrengo ondorengoengatik.

2. Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo bakoitzeko beste 347 euro kenduko dira urtean, aurreko zenbakiaren araberrako kenkaria aplikatzeaz gainera.

Zergadunarekin bizi den sei urtetik hamasei urtera bitarteko ondorengo bakoitzeko aurreko idatz zatiaren araberrako kenkaria aplikatzeaz gainera beste 54 euro kendu daitezke urtean. Kenkari hau ezin da bateratu aurreko paragrafoan ezarritakoarekin.”

Zortzi. 80. artikulua lehengo edukia 1. apartatu berrian sartzen da, eta 2. apartatua sortzen da; hona:

“2. Aurreko apartatua ezartzen dena gorabehera, epaile batek erabakitzen badu bi gurasoek ordaindu behar dituztela bien seme-alaben mantenturako urteko kopuruak, kenkaria bietako batek baino ezin izango du aplikatu, zergaldian zenbatekorik handiena ordaindu duenak, hain zuzen. Kenkariaren oinarria kalkulatzeko, guraso horren kontribuziotik besteak egindako kontribuzioaren zenbatekoa kendu behar da.

Baldin eta zergaldian gurasoek kopuru bera ordaintzen badute seme-alaben mantenturako, kenkari hau ezin izango da aplikatu.”

Bederatzi. 81. artikuluko 1. apartatua honela geratzen da:

“1. Urte natural osoan zergadunarekin etengabe eta modu iraunkorrean bizi den aurreko ahaide bakoitzeko 289 euroko kenkaria aplikatu ahalko da.

Kenkari hori aplikatzeko, aurreko paragrafoan deskribatutako bizikidetzarekin parekatuko da kasu hau: ondorengo ahaideak bere ondarearen kontura diru kopuruak ordaintzen badizkie gizarte zerbitzuen foru sarearen edo parekatuaren barruan ez dauden eta aurreko ahaidea egutegiko urte osoan etengabe bizi den egoitzei.”

Hamar. 82. artikuluko 1. apartatua honela geratzen da:

“1. Mendeko pertsona edo desgaitua den zergadun bakoitzagatik kenkari bat aplikatuko da, eta haren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da mendekotasunaren edo desgaitasunaren gradua zein den eta desgaituak hirugarren baten laguntza behar ote duen (gradu hori eta hirugarren baten laguntza behar izatea erregelamendu bidez ezarriko dira). Hona hemen kenkari horri dagokion taula:

Mendekotasunaren edo desgaitasunaren gradua eta hirugarren baten laguntza behar izatea	Kenkaria (euroak)
Ehuneko 33 - 65 bitarteko desgaitasuna	803
Ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa. Mendekotasun ertaina (I. gradua)	1.147



Ehuneko 75eko desgaitasuna edo handiagoa eta 15 - 39 puntu besteren laguntza behar izateagatik. Mendekotasun larria (II. gradua)	1.376
Ehuneko 75eko desgaitasuna edo handiagoa eta 40 puntutik gora besteren laguntza behar izateagatik. Mendekotasun oso larria (III. gradua)	1.717

Mendekotasunaren edo desgaitasunaren gradua eta laguntza behar izateagatik puntuak neurtzeko honako bi hauek ezartzen dutena aplikatuko da: abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretua, I. eranskina; otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretua, mendekotasuna baloratzeko baremoa onartzen duena (baremo hori abenduaren 14ko 39/2011 Legeak, besteren menpean bizi diren pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzekoak).

Kenkari bera aplikatuko da ezkontidea edo izatezko bikotekidea pertsona desgaitua edo mendekoa bada eta zenbaki honetan ezartzen diren betekizunak betetzen baditu.”

Hamaika. 83. artikulua honela geratzen da:

“83. artikulua. Adinaren kenkaria.

1. 65 urtetik gorako zergadun bakoitzeko 346 euroko kenkaria aplikatuko da.

Zergadunak 75 urte baino gehiago badauzka, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria 632 eurokoa izango da.

Apartatu honetan xedatzen dena aplikatzeko ezinbestekoa da zergadunaren zerga oinarria ez izatea 20.000 eurotik gorakoa.

2. 20.000-30.000 euro bitarteko zerga oinarria duten hirurogeita bost urtetik gorako zergadunek honela aplikatuko dute kenkari hau urtean: 346 euroko kenkari horri kendu egingo diote zerga oinarriari 20.000 euro kenduz lortzen den zenbatekoa bider 0,0346 eginez ateratzen den emaitza.

3. 20.000-30.000 euro bitarteko zerga oinarria duten hirurogeita hamabost urtetik gorako zergadunek honela aplikatuko dute kenkari hau urtean: 632 euroko kenkari horri kendu egingo diote zerga oinarriari 20.000 euro kenduz lortzen den zenbatekoa bider 0,0632 eginez ateratzen den emaitza.

4. Artikulu honen ondorioetarako, zerga oinarriaren zenbatekoa zerga oinarri orokorraren eta aurrezkiaren oinarri orokorraren batura izango da, foru arau honetako 65. eta 66. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik. Zerga oinarri orokorra negatiboa izanez gero, aurrean aipatutako batura zero izango da.

Hala ere, foru arau honetako 69. artikuluan aipatzen den konpentsazio pentsioen eta janarirako urteko kopuruen ondoriozko murrizketa aplikatzen bada zerga oinarri orokorrean eta (behar den kasuetan) aurrezkiaren zerga oinarrian, aurreko paragrafoan xedatzen denarekin bat etorritik kalkulaturako zerga oinarritik kenduko da.”



Hamabi. 86. artikuluko 3. apartatua honela geratzen da:

“3. Baterako tributazioa hautatzen bada eta hainbat pertsonak badute kenkari horretarako eskubidea, batzuk 30 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, aurreko 1. apartatuko hirugarren paragrafoan ezartzen diren ehunekoak eta muga aplikatuko dira.”

Hamahiru. 87. artikuluko 4. apartatuko bigarren paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“Baterako tributazioa hautatzen bada eta hainbat pertsonak badute kenkari horretarako eskubidea, batzuk 30 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, ehuneko 23 aplikatuko da eta muga 1.955 euro izango da, artikuluko honetako 5. apartatuko b) letran aipatzen diren kasuetan izan ezik.”

Hamalau. 87. artikuluko 4. apartatuko azken paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“Baterako tributazioa hautatzen bada eta hainbat pertsonak badute artikuluko honetako 1. apartatuko hirugarren paragrafoan xedatzen dena aplikatzeko eskubidea, batzuk 30 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, ehuneko 25 aplikatuko da eta muga 2.346 euro izango da, artikuluko honetako 5. apartatuko b) letran aipatzen diren kasuetan izan ezik.”

Hamabost. 89.bis artikulua sortzen da; hona:

“89.bis artikulua. Langileek entitate enplegatzailean parte hartzeagatik (erabakietan parte hartuz) aplika daitekeen kenkaria.

1. Zergadunek kenkaria aplikatu ahal izango dute langile gisa jarduten duten entitatearen edo haren taldeko beste edozein entitatearen akzioak erosteagatik edo harpidetzeagatik, baldin eta erosketaren aurretik entitatean azken bost urteetatik hiru urte eman badituzte lanean, gutxienez: zergaldian horretarako eskudirutan ordaindutako kopuruaren ehuneko 15eko kenkaria gizonak eta 20koa emakumeak.

Entitatean lan egindako aldia zenbatzeko, kontuan hartuko dira taldeko beste entitate batzuetan lan egindakoaldiak. bai eta senideen zaintza dela eta borondatezko eszedentzian egondakoaldiak ere.

2. Artikulu honetako kenkariak muga dauka: eskuratzailerak gizona bada, 1.500 euro urtean; emakumea izanez gero, 2.000 euro urtean.

Kopuruak ezin badira kendu aurreko paragrafoan ezarritako muga gainditzeagatik edo kuota osoa nahikoa ez izateagatik, hurrengo lau ekitaldietan kendu ahal izango dira, aipatutako muga errespetatuz.

Segidako zergaldietan zergadun bakoitzak artikuluko honen arabera aplikatzen dituen kenkariaren batura ezin da izan 6.000 euro baino gehiago, gizonak bada, edo 8.000 eurotik gorakoa, emakumeak bada.

3. Artikulu honetako kenkaria aplikatu ahal izateko honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Akzioak edo partaidetzak negoziatzeko onartuta egon behar dira balore merkatu arautu batean. Gainera, enpresako langileen jabetzan dauden boto eskubidedun akzioak edo partaidetzak sozietatearen kapitalaren ehuneko 10 izan behar dira gutxienez.



Entitatea talde bateko kidea bada, aurreko baldintza taldeko entitate guztietan bete behar da.

b) Akzioak edo partaidetzak dituzten langileen boto eskubideak taldekatu egin behar dira horren bidez enpresaren erabakietan parte hartu ahal izatea bermatzen duten tresnak eduki behar dira.

c) Enpresak jarduera ekonomikoa egin behar du.

d) Kenkari honetarako eskubidea ematen duten akzioak edo partaidetzak bost urtez mantendu behar dira gutxienez, honako kasu hauetan izan ezik: langile eskuratzailerak edo harpideduna aldi horren barruan hiltzen denean edo enpresa konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen denean.

e) Aurreko d) letran ezartzen den epealdian ezinbestekoa da eskuratzailerak edo harpidedunak entitatean lanean jarraitzea, honako kasu honetan izan ezik: eskurapenaren ondoren hiltzen bada edo bertan lan egiteari uzten badio ezintasun iraunkor osoa, absolutua, edo baliazintasun handia aitortu zaiolako. Hori dela eta, langile batek borondatezko eszedentzia hartzen badu senide bat zaintzeko, aldi hori lan egindako alditzat hartuko da.

f) Aurreko d) letrako epealdian langile bakoitzak entitatean zuzenean edo zeharka daukan partaidetza (barruan sartuta ezkontidearena edo izatezko bikotekidearena, aurrekoena, ondorengoena eta hirugarren gradurainoko alboko ahaideena) ezin da izan ehuneko 20tik gorakoa.

4. Bost urteko aldi zehar aurreko apartatuko baldintzak ez betetzeak kendutako kopuruak itzuli beharra ekarriko du berekin, berandutze interesak barne. Zenbat ordainduko den kalkulatzeko, kendutako zenbatekoari baldintza bete ez den zergaldiko kuota diferentziala batu beharko zaio. Hala ere, zergadunak kendutako kopuru horiek eta beren berandutze interesak lehenago ordaintzeko aukera edukiko du.

5. Artikulu honetan ezartzen dena ez da aplikatuko eskuraketa akzio edo partaidetzen gaineko aukerak baliatuta egiten denean.”

Hamasei. VII. tituluko V. kapituluaren barruan 90. quater artikulua gehitzen da; hona:

“90. quater artikulua. Kenkaria langileek entitateak eratzegatik.

1. Zergadunek lanean ari diren entitateko akzioak edo partaidetzak eskuratzeko edo harpidetzeko zergaldian eskudirutan ordaindutako kopuruen ehuneko 10eko kenkaria aplikatu ahal izango dute, gizonak badira, edo ehuneko 20koa, emakumeak badira.

Segidako zergaldietan zergadun bakoitzak artikuluko honen arabera aplikatzen dituen kenkari batura ezin da izan 1.200 euro baino gehiago, gizonekoa bada, edo 1.800 eurotik gorakoa, emakumezkoa bada.

2. Kenkari hau aplikatzeko honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Harpidetzaren xedea entitatea eratzea izan behar da. Hori dela eta, xede horretakotzat joko dira eratu ondoko sei hiletan egiten diren harpidetzak.

b) Entitatea ezin da egon beste bati lotuta, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 42. artikuluko 3. apartatuan ezartzen duenarekin bat etorriz.



- c) Baloreak ezin dira egon onartuta araututako balore merkatu batean negoziatzeko.
- d) Entitatea mikroenpresa edo enpresa txikia edo ertaina izan behar da, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 13. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz.
- e) Entitatea eratzen denetik sei hilabete pasatu baino lehen zergaduna lanean hasi behar da bertan.
- f) Langile bakoitzak zuzenean edo zeharka entitatean daukan partaidetza (ezkontidearena edo izatezko bikotekidearena, aurrekoena edo adoptatzaileena, ondorengoena eta adoptatuena, eta hirugarren gradurainoko alboko ahaideena sartuta) ezin da izan ehuneko 10 baino gehiago.
- g) Guztira, langileek ehuneko 75eko partaidetza eduki behar dute entitatean.

Baldintza hauek, a) eta e) letretakoak ez beste guztiak, bost urtean bete behar dira entitateta eratu ondoren, gutxienez. g) letrako baldintza ez da bete beharko entitatea eratu ondoko lehen sei hilabeteetan.

3. Kenkari honetarako eskubidea ematen duten akzioak edo partaidetzak gutxienez bost urtean eduki behar dira entitatea eratu ondoren.

Zergadunak gutxienez bost urtean egin behar du lan entitatean, honako kasu hauetan izan ezik: epealdia amaitu aurretik hiltzen bada; bertan lan egiteari uzten badio irazpenaren ondorioz edo ezintasun iraunkor osoa, absolutua, edo baliaezintasun handia aitortu zaiolako. Hori dela eta, langile batek borondatezko eszedentzia hartzen badu senide bat zaintzeko, aldi hori lan egindako alditzat hartuko da.

Aurreko paragrafoko baldintza ez da bete beharko entitatea eratu ondoko lehen sei hiletan.

4. Aurreko 2. eta 3. apartatuaren aipatzen diren baldintza edo inguruabarretako bat betetzen ez bada, zergadunak bidegabe aplikatutako kenkarien zenbatekoak itzuli beharko ditu, bai eta beren bidezko berandutza interesak ere, honako kasu hauetan izan ezik: ez betetzeko arrazoia epealdia amaitu aurretik hiltzea bada; entitatetik kaleratzen badute; entitatea konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen bada.

Zenbat diru itzuli behar den kalkulatzeko, bidegabe kendutako kopuruari araua urratu den zergaldiko kuota diferentziala batuko zaio. Hala ere, zergadunak bidegabe kendutako kopuru horiek eta beren berandutze interesak lehenago ordaintzeko aukera edukiko du.”

Hamazazpi. Hona 102. artikulua 2. apartatuaren edukia:

“2. Hala ere, errentak ondoko iturrietatik soilik lortzen dituzten zergadunek ez dute autolikidaziorik egin beharko:

- a) Lanaren etekin gordinak; urtean 12.000 euro gehienez, banakako zerga ordainketan. Baterako zerga ordainketan muga hori aipatutako etekin mota lortu duen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.
- b) Lanaren etekin gordinak; 12.000 eta 20.000 euro bitartean urtean banakako zerga ordainketan, 3. apartatuan aipatzen diren egoeretako batean sartuta daudenezat izan ezik. Baterako zerga ordainketan muga hori aipatutako etekin mota lortu duen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.



c) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak, salbuetsiak barne (bi kontzeptuak), urteko guztirako zenbatekoa 1.600 euro baino gehiago ez bada.

Letra honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partizipazioen eskualdaketen edo itzulketen ondorio diren ondarezko irabaziei, baldin eta, arauz ezarritakoaren arabera, atxikipen oinarria ez bada zehaztu behar zerga oinarri guztiaren zenbatekoarengatik.”

Hemezortzi. Hogeita bosgarren xedapen iragankorra honela geratzen da:

“Hogeita bosgarrena. Langileek enpresan parte hartzeagatik 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen aplikatutako kenkaria.

Langileek enpresan parte hartzeagatik zergadun bakoitzak segidako zergaldietan kendutako zenbatekoen muga (foru arau honetako 89. artikuluko 3. apartatuko hirugarren paragrafoan ezartzen dena) aplikatzean ez dira konputatuko 2016a baino lehenagoko zergaldietan kontzeptu horregatik kendutako kopuruak.”

3. artikulua. Ondarearen gaineko zerga.

Ondarearen gaineko Zergaren martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauan honako aldaketa hauek egiten dira (2019ko urtarrilaren 1etik aurrera dituzte ondorioak):

Bat. 17. artikuluko bigarren eta hirugarren apartatuak honela geratzen dira:

“Bi. Merkatu antolatuetan kotizatzen duen entitate juridiko batek eman ondoren kotizazio ofizialean onartu gabe dagoen akzio edo partaidetza berria harpidetzen denean, akzio edo partaidetzaren balioa harpidetze aldian aurreko tituluak eduki duen azken negoziazio balioa izango da.

Hiru. Ordaintzeko dauden kapital zabalkuntzei dagokienez, akzioak edo partaidetzak baloratzeko aurreko arauak aplikatuko dira, erabat ordainduta baleude bezala, ordaintzeko dagoen zatia zergadunaren zor moduan sarturik.”

Bi. 18. artikuluko lehenengo apartatuko lehenengo paragrafoa honela geratzen da:

“Bat. Aurreko artikuluan aipatzen direnak ez beste akzio eta partaidetza batzuen kasuan, akzioaren edo partaidetzaren balorazioa onartutako azken balantzean eduki duen ondare balioa izango da.”

Hiru. Honela geratu da 5. artikuluko hamalagarren apartatua:

“Hamalau. Jarduera ekonomikoa finantzatzea sustatzeko Europako Funtsetako partaidetzak eta ekoizpenaren kapitalizazioa sustatzeko Europako Funtsetako partaidetzak, baldin eta, hurrenez hurren, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauaren 11. edo 12. artikuluan xedatutakoak betetzen badituzte eta erosi zirenetik bost urtez zergadunaren ondareko zati badira. Zergadunak aipatutako epe hori betetzen ez badu edo funtsak aipatutako foru arauko 11. edo 12. artikuluetan xedatutakoak betetzen ez badituzte, salbuespen egoera hori galduko da eta dagozkion ekitaldietako autolikidazio osagarria aurkeztuko da eta dagozkion zenbatekoak gehi berandutze interesak ordainduko dira.



Epea betetzat joko da, baldin eta partaidetzen zergadun titularra aurreko paragrafoan aipatutako epea bukatu baino lehen hiltzen bada. Zergadunak partaidetza horiek, zeharka, zuzeneko edo zeharkako partaidetza duen sozietate batean baditu eta partaidetza hori, gutxienez, erakunde horietako kapitalaren ehuneko 5 bada, eskubidea izango du zerga honen zerga oinarrian murrizketa bat aplikatzeko. Murrizketa hori eragiketa honen emaitza izango da: zenbaki honetan aipatzen diren Europako Funtsetako partaidetzan aktibo den sozietatean duen partaidetzaren ehunekoa bider haien balioa. Murrizketa horrek ezin du ekarri zerga oinarria negatiboa izatea.”

4. artikulua. Sozietateen gaineko zerga.

Lehenengoa. Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan aldaketa hauek egiten dira (2019ko urtarrilaren 1az geroztik hasitako zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 14. artikuluko 1. apartatuko c) letrari paragrafo bat gehitzen zaio; hona:

“c) letra honetan ezartzen den baldintza betetzat joko da entitateak sarrerarik ez daukanean.”

Bi. 14. artikuluko 2. apartatuko b) letra honela geratzen da:

“b) Ez dira konputatuko baloretzat ez jarduera ekonomikoari atxiki gabeko elementutzat eskuraketa prezioa entitateak lortutako mozkin banatu gabeen zenbatekoa baino handiagoa ez dutenak, baldin eta mozkin horiek jarduera ekonomikoak eginez lortu badira, muga honekin: urte berean nahiz aurreko azken 10 urteetan lortutako mozkinen zenbatekoa (kontabilitateko emaitza positiboak eta negatiboak beren artean konputatu eta integratuta).

Banatu gabeko mozkinak erreserba modura agertu behar dira entitatearen balantzearan.

Horretarako, jarduera ekonomikoaren mozkinekin parekatzen dira apartatu honetako a) letrako azken puntuan azaltzen diren baloreen dibidenduak, bai eta partaidetzak eskualdatuta lortutako gainbalioak ere, baldin eta partaidetutako entitateak lortutako sarreraren ehuneko 80 gutxienez jarduera ekonomikoaren ondoriozkoak badira.”

Hiru. 25. artikuluko 4. apartatua indargabetzen da.

Laugarrena. 32. artikuluari 2.bis apartatua gehitzen zaio; hona testua:

“2.bis. Foru arau honetako 14. artikuluan aipatzen diren ondare sozietateetako batek ondare elementu bat eskualdatzen badu, horren eskuraketa baliotik honako zenbateko hau kendu behar da: foru arau honetako 17. artikulua araberaz zerga honen araubide orokorrean egin ahal izango liratekeen gutxienerako amortizazioen zenbatekoa.”

Bost. 36. artikuluko 1. apartatua honela geratzen da:

“1. Nahi izanez gero, zerga oinarrian sartu gabe utz daitezke ustiapen ekonomikoari loturiko ibilgetu material edo ez materialeko edo higiezinaren inbertsioetako ondare elementuen kostu bidezko eskualdaketatik lortutako errentak, foru arau honetako 40.9 artikuluan arautzen den moneta balio galera aplikatuz zuzendu ondoren. Orobat egin daiteke elementu horietatik datozen errentekin, eskualdatu aurretik salmentarako mantendutako aktibo ez-korronte gisa sailkatuta bazeuden.



Foru arau honetako 31. artikuluko 3. apartatuan aipatzen diren ibilgailuak direla eta, b) letran aipatzen diren ibilgailuen eskualdaketetan bakarrik utz daitezke errenta horiek zerga oinarritik kanpo. Ildo beretik, 31. artikuluko 3. apartatuko d) letran aipatzen diren garraio elementuak direla eta, hirugarren paragrafoan aipatzen direnen eskualdaketetan bakarrik utz daitezke errentak zerga oinarritik kanpo.

Horretarako beharrezkoa da eskualdaketaren ondorioz lortutako zenbatekoa aurrean aipatutako ondare elementuetako batean berrinbertitzea hura eman edo eskura jarri aurreko urtearen eta osteko hiru urteen arteko epealdiaren barruan.

Berrinbertsioari dagokionez, ez dira kontuan hartuko berrinbertsio hori gauzatzen duten aktiboei lotutako eraiste edo kentzeen ondorioz hartuko diren betebeharrei dagozkien kostuak, kostuok aktiboak baloratzeko kontuan har daitezkeen arren.

Dena den, berrinbertsioa ez da egintzat joko, salerosketa egiten bada foru arau honen VI. tituluko VII. kapituluaren zehaztutako araubide berezian aipatutako zernahi eragiketa bidez; alegia, salerosketa talde bereko erakundeen edo haiei lotutakoan artean egiten bada, foru arau honen 42. artikuluan xedatzen den bezala. Berrinbertsioa ez da egintzat joko, orobat, talde bereko edo lotutako beste erakunde bati erosten zaionean foru arau honen 42. artikuluan xedatutako eran, baldin eta ibilgetu material berriak ez badira.

Berrinbertsioa gauzatzen den ondare elementua baliagarri jartzen den egunean egintzat joko da.

Finantza errentamenduko kontratuen helburu diren ondare elementuak badira, berrinbertsioa kontratua sinatu den egunean egintzat joko da, ondare elementu bakoitzaren eskurako balioaren zenbateko berarekin. Berrinbertsioaren ondorioak eresketa aukera gauzatzeak baldintzatuko ditu, baldintza suntsiarazle gisa”.

Sei. 36. artikuluko 2. apartatua honela idatzita geratu da:

“2. Ez dira zerga oinarrian sartzen ez diren errentetako zati ondare elementuen narriadurarengatik balio galeraren zenbatekoak, zergetan murriztu ahal izan badira, ez eta ere foru arau honen 25. artikuluan xedatutakoaren arabera murriztu ahal diren zenbatekoak edo amortizazio askatasunari, amortizazio bizkortuari edo amortizazio bateratuari aplikatutakoak, baldin eta aipatutako zerga oinarrian sartu behar badira, halakoak gozatu izan dituzten ondare elementuan eskualdaketaren ondorioz. Orobat, ez dira zerga oinarrian sartzen ez diren errentetako zati merkataritza funtsaren amortizaziorako kontabilitate zuzkiduren zenbatekoak, baldin eta ezin izan badira murriztu, foru arau honen 20.2 artikuluan xedatutakoa aplikatzeagatik.”

Zazpi. 45. artikuluko 6. apartatuko e) letra honela geratzen da:

“e) Lotutako beste alderdiak egindako eragiketarako merkaturako balio normalaren arabera baloratzeko eskumena beste zerga administrazio batek badauka, administrazio horri prozedura hasi dela jakinaraziko zaio, behar diren ondorioak sor daitezen, honako kasu honetan izan ezik: Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak 112.bis artikuluan xedatzen duena aplikatu behar bada, bertan arautzen den prozedurari ekingo zaio.”

Zortzi. 54. artikuluko 3. apartatuko lehenengo paragrafoa honela geratzen da:

“3. Zerga ordainketan ez dira kengarriak galera eta irabazien kontuan kontabilizatzen ez diren gastuak, edo erreserba kontu batean lege edo araudi batean hala xedatzen bada; salbuespenak: foru



arau honen arabera betekizun hori bete behar ez den kasuak, foru arau honetako 24., 25., 28., 29., 30., 51., 52. eta 53. artikuluetan eta 32. artikuluko 2. eta 4. apartatuetan aipatzen diren zerga oinarriko kenkariak, eta zergaren arautegian berariaz ezartzen diren gainerako kasuak.”

Bederatzi. 55. artikuluari 5. apartatua gehitzen zaio; hona testua:

“5. Entitate bat ondare sozietate bihurtzen bada (foru arau honetako 14. artikulua), konpentsatu gabeko zerga oinarri negatiboak dauzkala, ezin izango du aplikatu konpentsazioa ondare sozietatea den artean.

Halaber, entitate batek ondare sozietatea izateari uzten badio foru arau honetako 14. artikuluan xedatzen dena ez betetzeagatik, konpentsatu gabeko zerga oinarri negatiboak dauzkala, ezin izango du aplikatu konpentsazioa ondare sozietatea ez den artean.

Aurreko bi paragrafoetako kasuetan, hasierako egoerara itzuliz gero, zerga oinarri negatiboen edo saldo negatiboen konpentsazioa aplikatzen jarraitu ahal izango da, orduko zenbatekoa erreferentziatzen hartuta; kontuan eduki behar dira artikuluko honetako 1. apartatuan edo Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauko 66. artikuluan ezartzen diren baldintzak eta epealdia.”

Hamar. 64.bis artikulua gehitzen da; hona testua:

“64 bis artikulua. Ikerketa eta garapeneko proiektuetan edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea.

1. Zerga honen zergadunek edo establezimendu iraunkorarekin diharduten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek parte hartzen badute zerga horien beste zergadun batzuek egindako ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan eta proiektu horiek bete egiten badituzte foru arau honetako 62-64 artikuluetan ezarritako kenkarietarako eskubidea edukitzeko artikuluko horietan bertan ezartzen diren baldintzak, bada, orduan, zergadunok eskubidea izango dute kenkaria egiteko beren kuota likidoan, artikuluko honetan ezarritako baldintza eta betekizunekin; nolana ere, kenkari hori bateraezina izango da, osorik edo zati batean, zergadunok manu horietan ezarritakoaren ondorioz aplikatu litezkeen kenkariekin.

Hori dela eta, zergadun batek beste zergadun batek egindako ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektu baten finantzaketan parte hartzen duela pentsatuko da proiektuaren kostua (osorik edo zati bat) ordaintzeko kopuruak ekartzen dituzenean, aipatutako proiektua egiten duen zergadunak haiek itzultzea aurreikusi gabe.

Ez da subrogaziorik onartuko ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektu baten finantzaketan parte hartzen duen zergadunaren posizioan, oinordetza unibertsaleko kasuetan izan ezik.

2. Artikulu honetan xedatzen dena aplikatzeko ezinbestekoa da honako baldintza guztiak betetzea:

a) Proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak eta berarekin lotutako pertsonak edo entitateak (foru arau honetako 42. artikuluko 3. apartatuan azaltzen da lotura) kenkaria aplikatu baino lehen inoiz ez eduki izana partaidetzarik (ez zuzenean, ez zeharka) proiektua egiten duen entitatean.

b) Proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak eta berarekin lotutako pertsonak edo entitateak (foru arau honetako 42. artikuluko 3. apartatuan azaltzen da lotura) ez edukitzea inolako



partaidetzari (ez zuzenean, ez zeharka) proiektua egiten duen entitatearekin, ez proiektua egiten den aldian, ez amaitu ondoko hiru urteetan.

c) Ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak honako baldintza hauek bete behar ditu:

a') Entitate berritzailea izan behar da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 90. artikuluko 2. apartatuaren xedatzen duenarekin bat etorritz.

b') Artikulu horretako 3. apartatuaren a) eta c) letretan aipatzen diren baldintzak bete behar ditu. Ondorio horietarako, a) letran jasotako baldintza proiektua egiten den bitartean bete behar da, eta c) letran jasotakoa, berriz, kontratua formalizatzen denean.

c') Konkurtso egoeran ez egotea edo, bestela, konkurtso araudiak ezartzen dituen baldintzak ez betetzea hartzekodunek eskatutako konkurtso prozedura batean sartzeko.

d') Ez egotea ezein merkatu antolatutan negoziatzeko onartuta.

e') Arabako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 14.1 artikuluko a) letran ezarritako baldintzak ez betetzea.

f') Jarraian zerrendatzen diren jarduerak ez egitea:

- Nekazaritza, arrantza eta akuikultura.
- Esportazioarekin lotutako jarduerak.
- Lursailen, lehengaien, aukeren eta etorkizunen eta akzioen, baloreen eta beste finantza tresna batzuen salerosketa.
- Handizkako edo txikizkako ohiko salmentarekin zerikusirik ez duten ondasunen salerosketa.
- Finantza jarduerak, hala nola, banka, aseguruak, maileguak, factoring-a...
- Aktiboen alokairua edo lagapena.
- Royaltiyen eta lizentzien ustiapena, baldin eta ustiatzen den aktiboa erakundeak berak sortu ez badu.
- Zuzenbide edo kontabilitate zerbitzuen eskaintza.
- Higiezinen sustapena.
- Basoak ustiatzeko jarduerak.
- Itsasontzien eraikuntza.
- Ikazkintza.
- Altzairugintza.



- Hotelen edo antzekoen edo jarduera horietan erabiltzen diren higiezinaren ustiapena edo zuzendaritza.
- Zahar etxeen edo pertsonen zaintzan erabilitako zentroyen edo jarduera horietan erabiltzen diren higiezinaren ustiapena edo zuzendaritza.

- Argindarra sortzea edo esportatzea.

c) letra honetako d', e' eta f' letretan jasotako baldintzak proiektua egiten den bitartean bete beharko dira, eta c) letran jasotakoa, berriz, kontratua formalizatzen denean.

d) Ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duten zergadunak eta proiektuaren finantzaketan parte hartzen dutenek finantzaketa kontratua sinatu behar dute, eta bertan honako datu hauek zehaztu behar dituzte:

a') Nortzuk diren proiektuan parte hartzen duten zergadunak.

b') Ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuaren deskripzioa.

c') Proiektuaren aurrekontua.

d') Proiektua nola finantzatuko den, eta bereizita adierazi behar da zer zenbateko jarriko dituen proiektua egiten duen zergadunak, zer zenbateko jarriko dituen proiektuaren finantzaketan parte hartuko duen zergadunak eta zer zenbateko dagozkien finantza entitateen kredituei, dirulaguntzei eta bestelako babes neurriei.

e') Erregelamendu bidez zehazten diren gainerako guztiak.

d) letra honetan aipatzen den finantzaketa kontratua proiektua egiten hasi baino lehen formalizatu behar da.

Hala ere, kontratua proiektua egiten hasi ondoko lehen hiru hiletan formalizatu ahal izango da honako hauek gertatuz gero: artikulua honetako 7. apartatuan aipatzen den txostena proiektua egiten hasi baino lehen eskatzea eta egiten hasten denean zergaldia amaitu gabe egotea. Hala gertatzen denean, finantzaketa kontratuari 7. apartatuan aipatzen den txostenaren eskaeraren kopia erantsi behar zaio, eta aurreko 1. apartatuan xedatzen denaren aplikazioa etenda geratuko da txostena jaso arte.

3. Proiektuaren finantzaketan parte hartzen duten zergadunak ezin izango dute eskuratu proiektuaren emaitzen gaineko jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubiderik, ez eta beste modu bateko eskubiderik ere; izan ere, eskubide horien jabetza beti izan behar da proiektua egiten duen zergadunarena.

4. Zergadunak artikulua honetan ezarritako araubidea aplikatzea aukeratzen badu, ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak ez du eskubiderik izango foru arau honetako 62-64 artikuluetan ezarritako kenkariak osorik edo zati batean aplikatzeko, eta, haren orde, proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak eskubidea izango du bere autolikidazioan egiaztatzeko manu horietan ezarritako kenkaria; kenkariaren zenbatekoa, berriz, proiektua egiten duen zergadunari aplikatuko litzaizkiokeen baldintza beretan kalkulatu da."

Aurrekoa gorabehera, proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak kuotan aplika dezakeen kenkariak honako muga hau edukiko du: zergadunak proiektua finantzatzeko ordaindutako



zenbatekoa 1,20z biderkatzearen emaitzako zenbatekoa. Soberakina, egonez gero, ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak aplikatu ahal izango du.

Apartatu honetan ezartzen den muga ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten den aldiko zergaldi guztiei aplikatuko zaie.

5. Zergadun batek eta bere taldeko entitateek artikulua honetan ezartzen denaren arabera gehienez 200.000 euroko kenkariak aplikatu ahal izango dituzte ondoz ondoko hiru zergalditan. Hori dela eta, ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak aplikatzen dituen kenkariak zein beraren taldeko entitateek (Merkataritza Kodea, 42. artikulua) aplikatzen dituztenak hartuko dira kontuan.

Zergadun batek ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektu bat egiten badu bere taldeko entitate batzuekin batera (Merkataritza Kodea, 42. artikulua), ondoz ondoko hiru zergalditan ezin jaso izango du artikulua honetan ezartzen denaren arabera 200.000 eurotik gorako kenkariak eragiten dituen zenbatekotik gorako finantzaketa.

Foru arau honetako VI. tituluko VII. kapituluaren ezartzen den araubide bereziari heldutako enpresa erosketa eta bategiteen kasuan, idatz zati honetako mugak enpresa eskuratzailerak edo entitate berriak artikulua honetan aipatzen direnak bezalako proiektu berrietan duen partaidetza zenbatzeko aplikatuko dira.

6. Ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektu baten finantzaketan parte hartzen duen zergadun batek kenkaria aplikatzen badu, kontuan eduki behar da foru arau honetako 59. artikuluko 3. apartatua arautzen den gutxieneko tributazioaren erregelarako eta foru arau honetako 67. artikuluko 1. apartatua ezartzen den baterako muga (ehuneko 35) aplikatzeko.

Zergaldi batean zenbateko batzuk aplikatu gabe geratzen badira apartatu honetan ezartzen den mugaren ondorioz, hurrengo zergaldietan aplikatu ahal izango dira, baina beti ere zergaldi bakoitzean errespetatu beharreko muga errespetatuz.

7. Artikulua honetan xedatzen dena aplikatzeko ezinbestekoa da aurreko 2. apartatua aipatzen den finantzaketa kontratua sinatu aurretik lortzea foru arau honetako 64. artikuluko 2. apartatua aipatzen den txosten arrazoitua, edo Administrazioaren ustez xede bera betetzen duen besteren bat. Txosten hori, kontratuarekin batera, komunikazio batean aurkeztu behar zaio Zerga Administrazioari, ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak eta haren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak sinatuta. Komunikazioa, finantzaketa kontratua eta txostena proiektua egiten hasten den zergaldia amaitu baino lehen aurkeztu behar dira. Erregelamenduz ezarriko da nola aurkeztu behar diren.

Hala ere, aurreko 2. apartatuko d) letrako azken paragrafoan aipatzen den kasuan komunikazioarekin batera txostenaren eskaera ere aurkeztu behar da eta gero, zergadunak txostena jaso ondoren, komunikazio osagarria aurkeztu behar da hura jaso ondoko hiru hiletan.”

Hamaika. 73. artikuluko 1. apartatuko a) letra honela geratzen da:

“a) Foru arau honen aplikazioaren ondoriozko zerga betebeharrak edukiko dituzte, honako hau izan ezik: ez dute ordaindu beharko egoitza Espainiako lurraldean duten bazkideei egotzi beharreko zerga oinarriaren zatiari dagokion zerga zorra.



Foru arau honetako 130 bis artikuluan arautzen diren zatikako ordainketak direla eta, artikuluko horretako 2. apartatua aipatzen den kalkularen oinarrian ez da sartuko egoitza Espainiako lurraldean duten bazkideei egotzi beharreko zerga oinarriaren zatia.

Foru arau honetako 68. artikuluan aipatzen den itzulketa inolaz ere ez zaio aplikatuko egoitza Espainiako lurraldean duten bazkideei egotzi beharreko zerga oinarriaren zatiari.”

Hamabi. 73. artikuluko 1. apartatuko b) letrako c’) letra honela geratzen da:

“c’) Entitateak kuotan aplikatu ditzakeen kenkariak. Kenkarien oinarriak bazkideen likidazioan sartuko dira, eta kuota gutxituko dute, zerga honen edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arauak jarraituz.

Nolanahi ere, foru arau honetako 62 - 64 artikuluetan arautzen diren kenkariak ez dira sartuko bazkideen likidazioan, baldin eta bazkideek ekonomia intereseko taldeari egindako ekarpenak ezaugarri berezidun ondare tresna gisa kalifikatu behar badira kontabilitate irizpideen arabera”.

Hamahiru. 88. artikuluko 5. apartatua honela geratzen da:

“5. Araubidea zentsu aitorpe egokiaren bidez hautatutakoan zerga taldea araubide horri lotuta egongo da hurrengo zergaldietan, foru arau honetako 85. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen diren artean, zentsu aitorpenaren bidez uko egin ezean. Uko egin nahi izanez gero, araubidea aplikatzen den azken zergaldia amaitu ondoko bi hiletan egin behar da.”

Hamalau. 102. artikuluko lehenengo apartatuko a) eta c) letrak honela geratzen dira:

“a) Espainian dauden ondasunen eta eskubideen eskualdaketan ondorioz sortzen direnak.

Entitate eskuratzaileraren egoitza atzerrian badago, Espainiako lurraldean dagoen establezimendu iraunkor bati atxikitako elementuen eskualdaketan ondoriozko errentak bakarrik utz daitezke zerga oinarritik kanpo.

Elementu horiek Espainiako lurraldetik kanpora bidaltzeak berekin ekarriko du transferentzia gertatzen den zergaldian establezimendu iraunkorraren zerga oinarrian sartu behar izatea haien merkatuko balio normalaren eta hurrengo artikuluan aipatzen den balioaren arteko diferentzia (hurrengo artikuluko baliotik zerga ordainketarako kengarriak izanik kontabilitatean islatu diren amortizazioen eta bestelako balio zuzenketen zenbatekoa kendu behar da).

Dena den, Espainian egoitza duen establezimendu iraunkor bati atxikitako elementuak Europako Batasuneko eta Europako Eremu Ekonomiko beste estatu kide batera eskualdatzen direnean, zergadunak aukeran izango du aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeari dagokion kuota geroratzeko eta hurrengo bost urteetan eta ondorengoetan bukatzen diren zerga ekitaldietan zatikatuz ordaintzeko, baldin eta foru arau honen 41. artikuluko 2. apartatuko xedatutako baldintzak betetzen badira. Ordainketa hori aipatutako manu horretan xedatutako eran egingo da.”

c) Egoitza Espainiako lurraldean ez duten entitateek Espainiako lurraldean dauden establezimendu iraunkorrei egiten dizkieten eskualdaketetan sortzen diren errentak.



Entitate eskurazailearen egoitza atzerrian badago, Espainiako lurraldean dagoen establezimendu iraunkor bati atxikitako elementuen eskualdaketan ondoriozko errentak bakarrik utz daitezke zerga oinarritik kanpo.

Elementu horiek Espainiako lurraldetik kanpora bidaltzeak berekin ekarriko du transferentzia gertatzen den ekitaldian establezimendu iraunkorraren zerga oinarrian sartu behar izatea haien merkatuko balio normalaren eta hurrengo artikuluan aipatzen den balioaren arteko diferentzia (hurrengo artikuluko baliotik zerga ordainketarako kengarriak izanik kontabilitatean islatu diren amortizazioen eta bestelako balio zuzenketen zenbatekoa kendu behar da).

Dena den, Espainian egoitza duen establezimendu iraunkor bati atxikitako elementuak Europako Batasuneko eta Europako Eremu Ekonomiko beste estatu kide batera eskualdatzen direnean, zergadunak aukeran izango du aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeari dagokion kuota geroratzeko eta hurrengo bost urteetan eta ondorengoetan bukatzen diren zerga ekitaldietan zatikatuz ordaintzeko, baldin eta foru arau honen 41. artikuluko 2. apartatuko xedatutako baldintzak betetzen badira. Ordainketa hori aipatutako manu horretan xedatutako eran egingo da.”

Hamabost. 117. artikuluko 3. apartatuko bigarren paragrafoa honela geratzen da:

“Errenta horretatik entitatearen forma eraldatu edo karga tasa edo zerga araubidea aldatu arte sortutako kopurua honela kargatuko da: entitateak lehengo forma juridikoaren arabera edo karga tasa edo zerga araubidea aldatu ezean edukiko zituen karga tasa eta zerga araubidea aplikatuko zaizkio. Karga tasa eta zerga araubidea eskualdaketa egitean indarrean daudenak izango dira.”

Hamasei. 120.bis artikulua gehitzen da; hona:

“120.bis. artikulua. Entitateen indizeko alta berritzea eta bazterreko oharra ezeztatzea.

Baldin eta, foru arau honetako 120. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz, entitate bati Entitateen Indizean behin-behinean baja ematea erabakitzen bada eta horri buruzko bazterreko oharra egiten bada erregistro publiko egokian, Ogasuneko zuzendariak erabakiko du Indizean alta ematea eta bazterreko oharra ezeztatzea, entitate interesdunak eskatu eta entitateak zerga betebeharrak guztiak egunean dauzkala egiaztatzen ondoren.”

Hamazazpi. 128. artikuluko 2. apartatua ordezkutzen da, eta 3. eta 4. apartatuak gehitzen dira; honela idatzita geratuko dira:

“2. Zergadunek Zergaren autolikidazioan aurreko idatz zatian aipatzen diren hautapenak aldatu ahal dituzte Zergaren aitortpena norberaren borondatez aurkezteko epealdia amaitu ondoren, baldin eta Zerga Administrazioak errekerimendurik egin ez badie.

3. Zerga Administrazioak errekerimendua egin ondoren zergadunek ezin izango dituzte egin artikuluko honetan aipatzen diren hautapenak.

4. Aurreko apartatuetan xedatzen denari dagokionez, aurretiazko errekerimendua zer den Arabako Zergen Foru Arau Orokorrek ezartzen du 27.1 artikuluko bigarren paragrafoan.”

Hemezortzi. 130.bis artikuluko 1. apartatuari beste paragrafo bat gehitzen zaio, azkenean; hona:



“Foru arau honetako 14. artikuluan aipatzen diren ondare sozietateak eta salbuespen partziala duten entitateek artikuluko honetan arautzen den ordainketa zatikatua egin beharko dute foru arau honetako 13. artikuluko 1. eta 2. apartatueta b) eta c) letratan ezartzen diren baldintzak betetzen ez dituztenean.

Halaber, foru arau honetako VI. tituluko III. kapituluan aipatzen diren aldi baterako enpresa elkarteak eta interes ekonomikoko taldeak artikuluko honetan arautzen den ordainketa zatikatua egin beharko dute, eta horretarako egoiliar ez diren bazkideen zerga oinarria eta atxikipenak hartu beharko dituzte erreferentziatzat.”

Hemeretzi. Hogeita hirugarren xedapen gehigarria honela geratzen da:

“Hogeita hirugarrena. Beste araudi bat aplikatzen zaie ekonomia intereseko taldeetako bazkideak.

Foru arau honetako 2. artikuluko 4. apartatua ezartzen denaren arabera ekonomia intereseko talde bati ez bazaio aplikatzen Arabako Lurralde Historikoko foru araudia eta taldeko bazkideei, aldiz, Arabako Lurralde Historikoko foru araudia aplikatu behar bazaie zerga honetan edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, bazkideei beti aplikatuko zaie foru arau honetako 73. artikuluko 1. apartatuko b) letrako c’) letrako bigarren paragrafoan eta b) letra horretako azken paragrafoan ezartzen dena.”

Hogei. 39. artikuluko 9. idatz zatia honela geratu da:

“9. Foru arau honetako 64 bis artikuluan ezarritakoaren ondorioz aplikatutako kenkariak handiagoak badira zergadunak artikuluko horretan aipatzen diren ikerketa eta garapeneko proiektuetan zein berrikuntza teknologikokoetan inbertitutako kopuruak baino, zergadunaren zerga oinarrian sartuko da aplikatutako kenkarien eta proiektu horiek finantzatzeko ordaindutako kopuruaren arteko diferentzia positiboa.”

Bigarrena. Ondarearen gaineko Zergaren martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauan aldaketa hauek egin dira:

Bat. 2. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“2. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa.

1. Zerga egoitza Araban duten zergadunei aplikatuko zaie foru arau honetan xedatutakoa.

Salbuetsi egiten dira bi baldintza hauek betetzen dituzten zergadunak:

- Aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izatea.
- Ekitaldi horretan lurralde erkidean egindako eragiketak guztirako bolumenaren ehuneko 75 edo gehiago izatea, edo Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak beste bi lurralde historikoetako batean edo bietan egitea.



2. Foru arau honetan xedatutakoa zerga egoitza Bizkaian edo Gipuzkoan duten zergadunei ere aplikatuko zaie, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

- Aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izatea.
- Ekitaldi horretako eragiketa bolumenaren ehuneko 75 edo gehiago lurralde erkidean egin ez bada.
- Aurreko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Araban egin badira edo, Araban eta zerga egoitza ez daukan beste lurralde historiko batean egin badira, eragiketa bolumenaren zatirik handiena Araban egin bada.

3. Foru arau honetan xedatutakoa zerga egoitza lurralde erkidean duten zergadunei ere aplikatuko zaie, baldin eta hiru baldintza hauek betetzen badira:

- Aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izatea.
- Beren eragiketa ehuneko 75 edo gehiago Euskal Herrian egitea, baldin eta ez badira lurralde erkidean egoitza duen zerga talde bateko kide. Hala balitz, foru araudia aplikatuko litzateke ekitaldi horretan eragiketa guztiak Euskal Herrian egin balituzte.
- Araban egindako eragiketa bolumena beste lurralde historiko bietako bakoitzean egindakoa baino handiagoa izatea.

4. Foru arau honetan xedatutako interes ekonomikoko elkarteei eta aldi baterako enpresa elkarteei aplikatuko zaie, haiek osatzen dituzten guztiak hiruretako zernahi lurralde historikoko foru araudiari lotuta badaude eta zerga egoitza Araban badute edo, lurralde erkidean izanik, beren eragiketa bolumenaren ehuneko nagusia Araban egiten badute.

Dena den, aurreko apartatuan aipatutako interes ekonomikoko elkarreek eta aldi baterako enpresa elkarreek beren zerga egoitza Bizkaian edo Gipuzkoan badute, baina lurralde horietan eragiketa bolumenaren zati gisa hartu behar diren eragiketak egiten ez badituzte, foru arau honetan xedatutakoa aplikatuko dute, baldin eta beren eragiketa bolumenaren ehuneko nagusia Araban egiten badute.

Erakunde horiek lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren zatia bereiz egotziko diete bazkideei, eta hauek kontuan eduki beharko dute beren eragiketen proportzioa zehazteko.

5. Foru arau honetan araututako zerga taldeen tributazio erregimena aplikatu ahal izateko bi baldintza hauek bete behar dira: batetik, aurreko lehen hiru apartatuetan xedatutakoarekin bat etorritik, entitate nagusiari foru arau hau aplikagarria izatea; bestetik, mendeko entitate guztiei sozietateen gaineko zergari buruzko lurralde historikoetako bateko arautegia aplikagarria izatea.

Foru arau honetako 85. artikulua 1. apartatuko bigarren lerroaldean ezarritakoari jarraituz eraturako zerga taldeen kasuan, foru arau honetan ezarritako zerga araubidea aplikatuko zaie, baldin eta aurreko ekitaldian eragiketa bolumenik handiena izan duen taldeko erakundeari aplikatzen bazaio foru arau



honetan xedatutakoa eta baldin eta taldea osatzen duten beste erakunde guztiei aplikatzen bazaie lurralde historikoetatik edozeinen sozietateen gaineko zergaren araudia.

Apartatu honetan xedatzen denaren ondorioetarako, lurralde erkideko erregimena aplikatzen zaien entitateak ez daude zerga taldean.”

Bi. 43. artikuluko 10. apartatua honela geratzen da:

“10. Foru arau honen 42. artikuluko 3. apartatuan ezarri moduan, talde batean nagusi diren eta Espainian dauden erakundeek, eta aldi berean beste erakunde baten mende ez daudenek (egoiliarrek edo ez egoiliarrek), artikuluko honen hurrengo idatz zatiak aipatzen duen informazioa herrialdez herrialde aurkeztu beharko dute.

Halaber, Espainian dauden eta zuzenean edo zeharka Espainian ez dagoen erakunde baten mendeko diren erakunde horiek aurkeztu behar dute, kontuan hartuta, bigarren erakunde horiek ez daudela beste taldeko erakunde baten edo bertakoak ez diren erakundeen establezimendu iraunkorren mende, baldin eta honako inguruabarren bat jazotzen bada:

- a) Herrialdez herrialde informatzeko betebeharra ez egotea idatz zati honetan ezarritako antzeko terminoetan, zerga egoitzaren herrialdean edo lurraldean ez dagoen aipatu erakundeari dagokionez.
- b) Erakunde ez egoiliar horrek zerga egoitza duen herrialdearekin edo lurraldearekin informazioaren truke automatikorako akordiorik ez egotea, aipatu informazioari dagokionez.
- c) Erakunde ez egoiliar horrek zerga egoitza duen herrialdearekin edo lurraldearekin informazioaren truke automatikorako akordio bat duenean, aipatu informazioari dagokionez, ez betetzeren bat jazotzea, Zerga Administrazioak Espainian dauden mendeko erakundeei eta establezimendu iraunkor egoiliarrei ondorengo apartatu honetan ezarritako epean jakinarazitakoa.

Aurrekoa gorabehera, aipatutako mendeko erakundeek edo Espainian establezimendu iraunkorra duten erakundeek ez dute informazioa jakinarazi beharko, multinazionalak informazio hori emateko Europar Batasuneko kide den estatu batean egoitza duen taldeko mendeko erakunde bat izendatu duenean horretarako edo taldeak lurraldean egoitza ez duen beste erakunde bat informazio hori egoitza duen lurraldean aurkezteko izendatu duenean, aurkezpen horretarako erakunde nagusiaren subrogatu gisa. Europar Batasunetik kanpoko lurralde batean zerga egoitzarekin erakunde subrogatu gisa diharduenean, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/UE Zuzentarauaren III. eranskineko II. ataleko 2. apartatuan xedatutako baldintzak bete beharko dituzte. Zuzentarau horrek fiskalitatearen eremuko administrazioen lankidetzari buruz dihardu eta 77/799/CEE Zuzentaraua indargabetzen du.

Espainian egoitza duten zenbait mendeko erakunde izanik, multinazionalak informazioa aurkezteko haietako bat izendatu badu, hura baino ez da egongo aurkeztera behartuta.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Espainian dagoen eta hemen ezarritako informazioa aurkezteko betebeharra duen talde baten parte den erakunde egoiliar orok Zerga Administrazioari informazio hori prestatu behar duen erakundearen identifikazioaren eta egoitza duen herrialdearen edo lurraldearen berri eman beharko dio.

Jakinarazpen hori informazioak hizpide duen zergaldia amaitu baino lehen egin beharko da.



Era berean, apartatu honen bigarren paragrafoan xedatutakoetarako, erakunde ez egoiliarak ez du aurkezteko Espainian egoitza duen taldearen edo establezimendu iraunkorra duenaren informazioaren zati bat edo dena. Haiek duten informazioa aurkeztuko dute eta inguruabar horren berri emango diote zerga administrazioari.

Arauz xedatuko dira apartatu honetan zehaztutako informazioa aurkezteko epea eta era:”

Hiru. 43. artikuluko 11. apartatuko lehenengo paragrafoa honela geratzen da:

“11. Artikulu honen aurreko apartatuan ezarritako herrialdez herrialdeko informazioa aipatu informazioa aurkeztu behar duten erakundeei eskatu ahal izango zaie, taldea osatzen duten pertsonen edo erakundeen negozioen zenbateko garbia zergaldia hasi aurreko 12 hilabeteetan gutxienez 750 milioi eurokoa denean.”

Laugarrena. 132. artikuluko 1. apartatuko c) letra eta 5. apartatua aldatu dira eta honela geratu dira:

“c) Zergadunak lurralde erkidean badauka zerga egoitza, aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bada, ekitaldi horretan eragiketa guztien ehuneko 75 edo gehiago Euskal Autonomia Erkidegoan egin baditu edo denak lurralde erkidegoko zerga talde bateko kide bada zergaduna eta, gainera, Araban gainerako lurralde historikoetan egindako eragiketa bolumena baino proportzio handiagoa egin badu.”

“5. Foru arau honetako VI. tituluko VI. kapituluan xedatutakoarekin bat etorritik tributatu duten zerga taldeei dagokien zergaren ikuskaritza Arabako Foru Aldundiari dagokio entitate nagusia aldundiaren ikuskaritza eskumenaren mende baldin badago, aurreko 1. apartatuan xedatutakoarekin bat etorritik.”

Foru arau honetako 85. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerroaldean ezarritakoaren arabera eraturako zerga taldeen kasuan, Arabako Foru Aldundiak ikuskatuko du zerga taldea baldin eta aldundiak badauka eskumena aurreko ekitaldian eragiketa bolumenik handiena izan duen taldeko erakundea ikuskatzeko, aurreko 1. paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorritik.”

5. artikulua. Kooperatiben zerga araubidea.

Kooperatiben zerga araubideari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauko 27. artikuluko 2. apartatuko azken paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da (aldaketak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak):

“Apartatu honetan aipatzen den partida kengarriaren aplikazioa hautatu egin behar da, eta horretarako Arabako Zergen Foru Arau Orokorak 115. artikuluko 3. apartatuan xedatzen duena eta Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauak 128. artikuluko 2. 3. eta 4. apartatuetan xedatzen duena egin behar da.”

6. artikulua. Toki ogasunak.

Aldaketa hauek egiten dira Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauan:

Bat. 7. artikuluari beste apartatu bat gehitzen zaio, hirugarrena hain zuzen ere. Hona hemen edukia:



“3. Ordaintzeko epeei eta betearazte aldia abiatuta izan eta premiamendu probidentzia jakinarazita duten zerga zorrei dagokienez, udalek Zergen Foru Arau Orokorraren 61. artikuluko 5. apartatuan xedatutakoa aplikatu ahal izango dute, edo bestela epe hauek aplikatu zerga zorra ordaintzeko:

a) Premiamendu probidentzia hilaren 1etik 15era bitartean jakinarazten bada, jakinarazpena jasotzen den egunetik hilaren 20ra arte; 20a balioduna ez bada, aldia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

b) Premiamendu probidentzia hilaren 16tik azken egunera bitartean jakinarazten bada, jakinarazpena jasotzen den egunetik hurrengo hilaren 5era arte; 5a balioduna ez bada, aldia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.”

Bi. 20. artikuluari beste apartatu bat gehitzen zaio, seigarrena hain zuzen ere. Hona hemen edukia:

“6. Artikulu honen 3. apartatuak aipatzen dituen zerbitzu publikoak emateagatik jasotzen diren hertsapenezko kontraprestazio ekonomikoak tributu-izaera ez duten ondare-prestazio publikotzat hartuko dira, Konstituzioaren 31.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz; prestazio hori pertsonifikazio pribatuaren bidez zuzenean emandakoa edo zeharka kudeatutakoa izan daiteke.

Zehazki, halakotzat hartuko dira exijitzen direnak obrak ustiatzeagatik eta zerbitzuak emateagatik honako formula hauen bidez: emakida-araubidea, ekonomia mistoko sozietateak, enpresa-erakunde publikoak, kapital guztiz publikoa duten sozietateak eta zuzenbide pribatuko gainerako formulak.

Sektore publikoko kontratuen Legeak 103. artikuluan ezartzen duena gorabehera, apartatu honetan arautzen diren kontraprestazio ekonomikoak ordenantza baten bidez arautuko dira. Ordenantza onartzeko prozeduran toki erakundeek nahitaezko txostena eskatuko diete ordenamendu juridikoaren arabera beren gainean esku hartzeko ahalmenen bat duten administrazio publiko guztiei.”

7. artikulua. Ondasun higiezinaren gaineko zerga.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauan zenbait aldaketa egiten dira:

Bat. 5. artikuluko 2. apartatua honela geratzen da:

“2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatu egin behar da, hargatik eragotzi gabe subjektu pasiboak zerga karga beste batzuei jasanarazi ahal izatea zuzenbide erkidearen arauen arabera.

Udalek zergaren kuota likidoaren zati egokia jasanaraziko diete subjektu pasibo izan ez arren haren herri erabilerako edo ondareko ondasunak kontraprestazio baten trukean erabiltzen dituztenei. Erabiltzaile horiek nahitaez jasan behar dute ordainarazpena. Hori dela eta, honako hau hartuko da aintzat jasanaraziko den kuota kalkulatzeko: errentari edo erabilera eskubideen lagapen hartzaile bakoitzari zuzenean lotutako azalera erabilgarriari eta eraikuntzari dagokion katastro balioaren zatia.

Ondasun higiezina etxebizitzaren arloko politika sozialei atxikita badago, ordainarazpena ez da nahitaezkoa.

Halaber, zergadunaren ordezkioak gainerako kontzesiodunei jasanarazi ahal die bakoitzari ordaindu beharreko kanonaren arabera dagokion kuota zatia.”



Bi. 15. artikuluko 13. apartatuari azken paragrafoa gehitzen zaio; hona:

“Apartatu honetan aipatzen den errekargua inoiz ez zaie aplikatuko administrazio publikoen eta haien menduko erakundeen bizitegitarako ondasun higiezinari, baldin eta horiek, etxebizitza librean alokairu merkatuan eragiteko programa publikoen harira, erakundeek hirugarrenei alokairu merkean edo doan lagatako etxebizitzaren eskaintza publikoko zati badira.”

8. artikulua. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga. Aldaketa hauek egiten dira Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifak eta horiek aplikatzeko jarraibidea onetsi dituen uztailaren 23ko 573/1991 Foru Dekretu Arauemailearen I. eta III. eranskinetan:

Bat. I. eranskineko (“Tarifak”) lehen ataleko 251.3 epigrafea honela geratzen da:

“251.3 epigrafea. Produktu kimiko inorganikoak fabrikatzea (gas industrialak, gas konprimituak ez beste guztiak, barne).”

Bi. I. eranskineko (“Tarifak”) lehen ataleko 251.3 epigrafeari buruzko oharra honela geratzen da:

“Oharra: Epigrafe honetan honako hauek biltzen dira: azido sulfurikoa eta produktu eratorriak (anhidrido sulfurosoa eta beraren eratorriak; kobre sulfatoa; aluminio sulfatoa; karbono sulfuroa; sodio sulfatoa eta sodio sulfuroa; sufre sublimatuak, birfinduak eta hauspeatuak, eta abar) sortzea; gas industrialak fabrikatzea, likidoak zein gasak (gas konprimituak ez beste guztiak; hauexek dira gas konprimituak: fabrikatu ondoren, likido zein gas modura 150 bar-etik gorako presioan ontziratzen diren gas industrialak); elektrokimika; kaltzio karburoa sortzea; fosforoa, kaltzioa, artsenikoa, zianuroa, bromoa, iodoa sortzea; azido inorganikoak, baseak, hidroxidoak eta peroxidoak sortzea; haluro ez-metalikoak fabrikatzea; gatzak eta oinarritzko beste produktu kimiko inorganiko batzuk sortzea; isotopo erradioaktiboak sortzea.”

Hiru. I. eranskineko (“Tarifak”) lehen ataleko 253.1 epigrafea honela geratzen da:

“253.1 epigrafea. Gas konprimituak eta anhidrido karboniko solidoa (izotz lehorra) fabrikatzea.”

Laugarrena. I. eranskineko (“Tarifak”) lehen ataleko 253.1 epigrafeari buruzko oharra honela geratzen da:

“Oharra: 251.3 epigrafeko gas industrialak gas konprimitutzat jotzen dira 150 bar-etik gorako presioan ontziratuz gero.”

Bost. J) letra gehitzen zaio III. eranskineko jarraibideko 4. erregelako 2. apartatuari; hona:

“J) Erregela honetako 4. apartatuan xedatzen dena gorabehera, tarifetako errubrika guztiek ahalmena ematen diete subjektu pasiboari beren bezeroei “cashback” zerbitzua emateko 811. eta 812. taldeetan sailkatutako jarduera egiten duten finantza entitateen kontura (eskudirua ateratzeko eta eskuratzen diren ondasunak edo zerbitzuak ordaintzeko zerbitzu konbinatua).”

9. artikulua. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauko 4. artikuluko 6. apartatuko c) letra aldatzen da eta honela geratzen da:



“c) Ehuneko 100era arteko hobaria ibilgailu historikoentzat edo gutxienez hogeita hamar urte dituztenentzat, fabrikazio datatik edo lehen matrikulazioaren datatik zenbatuta.”

10. artikulua. Balio erantsiaren gaineko zerga.

Aldatu egiten da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 167.bis.1 artikulua d) letra, eta honela geratzen da idatzita:

“d) Subjektu pasiboek lurralde bakoitzean egindako eragiketa bolumenaren proportzioaren arabera ordaintzen dituztenean zergak, beren zerga egoitza lurralde erkidean dutenean eta aurreko ekitaldian beren eragiketen ehuneko 75 edo gehiago EAEn egin dituztenean eta EAEn egindako eragiketa bolumenaren proportzio handiena Araban egin dutenean, estatuko administrazioarekin lurralde erkidean egindako eragiketengatik lankidetzan jarduten den gorabehera, administrazio eskudun guztien aurrean izango du ondorio, haiei dagokien tributazio ehunekoa barne.

Aurreko letran ezarritakoa gorabehera, lurralde erkideko erakunde taldeetako araubide berezira lotutako erakundeen kasuan, lurralde historiko honetako Zerga Ikuskatzaitzak ikuskatuko ditu; eta, beraz, lurralde erkideko taldetik kanpo geldituko dira aurreko ekitaldian egindako eragiketen ehuneko 100 egiten dituztenean, EAEn, ezarritako konexio puntuekin bat, eta euskal lurraldean egindako eragiketen bolumen proportzio handiena edo dena Araban egin denean.”

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra. Foru arau hau indarrean sartu aurretik aitortu beharreko mugez gaindiko mekanismoen aitortpen beharren araubide iragankorra.

Foru arau honen 1. artikuluko bigarren apartatuak aipatzen dituen mugez gaindiko mekanismoak, baldin eta haiek aitortu beharra, arauz xedatutako eran, 2018ko ekainaren 25a eta 2020ko ekainaren 30a bitartean sortu badira. Horra horiek 2020ko uztailaren eta abuztuaren aitortu beharko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

2019ko urtarrilaren 1etik aurrera ez du indarririk izango Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 33/2013 Foru Araua aldatu zuen urtarrilaren 16ko 1/2019 Foru Arauak, salbu 79. artikulua 2. apartatuko azken paragrafoak, urtarrilaren 16ko 1/2019 Foru Arau horrek hirugarren artikuluan ematen dion idazkeraren arabera; foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean geratuko da indargabetuta paragrafo hori. Indargabetu egiten dira, halaber, foru arau honetan xedatzen denaren kontra dauden xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean sartzea.

ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean xedapen orokor hau, salbu ondorioak sortzen hasteko egun jakin bat esleituta duten arauak.



2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldien autolikidazioei baino ez zaie aplikatuko foru agindu honek, aplikatutako kontzeptuak edo araubideak direla eta, aukeren araubidean egindako aldaketak.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.